

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernua “Ezagutzatik bizikidetzara. Topaketa komunitate islamiarrekina” jardunaldiak antolatu ditu

*Baluartan (Iruña) eginen dira astelehenean eta asteazkenean, hilak 7 eta 9; eta Tuteran ostegunean, maiatzak 10, saio guztiak 19:00etatik aurrera*

Osteguna, 2018.eko maiatzak 3

Nafarroako Gobernua, Bake, Bizikidetzeta eta Giza-Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, datorren astean Iruñean eta Tuteran egingo diren komunitate islamiarrekiko topaketa-jardunaldiak antolatu ditu “Ez hitz egin gutaz, hitz egin gurekin” lelopean.

Nafarroako Komunitate Islamiarren Batasunaren eta GENen (Gizarte Eskubideak Nafarroa) lankidetzaz, “Ezagutzatik bizikidetzara” jardunaldi hauen bitartez, gero eta emankorragoa izango den bizikidetzeta lortu nahi da kulturen eta komunitateen artean. Hartara, topaketak lanildo berriak bilatu nahi dizkie gai honetan zer esana duten eragileei: Nafarroako Gobernuari berari, toki-erakundeei, ikastetxeei, elkarteei nahiz Foru Komunitateko herritarrei.

Jardunaldiak Herritarrekiko eta Erakundekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok inauguratuko ditu astelehenean, maiatzak 7, 19:00etan, Iruñeko Baluartan. Hauexek dira topaketa eta elkar ezagutzeta xede dituen lehendabiziko saio honetako partaideak: Riay Tatary, Espainiako Islamiar Batzordeko lehendakaria; Rocío López, Justizia Ministerioko Pluralismoa eta Bizikidetzeta Fundazioko zuzendaria; Mohamed Amnay, Nafarroako Komunitate Islamiarren Batasuneko lehendakaria, eta Maryam Martínez Méndez, Nafarroako emakume musulmanen taldeko kidea.

Islamari buruzko ikuspegia aldatu eta egungo legeriak komunitate islamiarrei aitortzen dizkien eskubideetara hurbiltzea da ekimenaren



Jardunaldi hauetarako landu den programaren kartela.

xedea.

Bigarren eta hirugarren saioek antzeko egitura izanen dute: maiatzaren 9an Iruñeko Baluartan eta maiatzaren 10ean Tuteran, Rúa Zentro Zibikoan, bizikidetzaren gaia ardatz hartuta. Bertan, tokian tokiko hainbat ekimen aurkeztuko dira; hala nola, Burlatako eta Ribaforadako udalek bultzaturikoak edota Iruñeko Buztintxuri eta San Adrianeko Alfonso X El Sabio ikastetxeenak. Azkenik, mahainguru batean, hainbat elkarteren ahotsak entzuteko aukera izanen da: GEN, Islamofobiaren aurkako Plataforma Herritarra, Amnesty International, Munduko Medikuak, Gurutze Gorria, Zaska Nafarroako Zurrumurruren aurkako Sarea, San Jorgeko Zentro Kultural Islamiarra eta Castejoneko Komunitate Islamiarra.

Nafarroako Gobernuak jardunaldietan parte hartzeko gonbita luzatu die toki-erakunde, ikastetxe nahiz elkarteetako arduradunei eta herritar guztiei, topaketa aberasgarria izan dadin eta bizikidetzari buruzko lan-ildoak irekitzen jarrai dezan.

### **Departamentuen arteko mahaia**

Nafarroako Gobernuak departamentuen arteko mahaia sortu zuen 2016an, Nafarroako komunitate islamiarren ordezkariekin batera. Komunikazio eta elkarriketarako tresna iraunkorra finkatzea da helburu nagusia, Nafarroako zenbait herritan dauden komunitate islamiarrei berriaz eragiten dieten kulturen arteko harreman eta bizikidetzari buruzko arazoei aurre egin ahal izateko.

Lan horren ondorioz, Bake, Bizikidetzeta eta Giza-Eskubideen Zuzendaritzak beharrezkotzat jo du komunitate islamiarrekiko topaketa hori gizarte osoari helaraztea, jendearentzat irekitako leku batean.